

PROBA ESPEZIFIKOA

2024ko PROBA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK: 25 URTETIK GORAKOAK

2024ko MAIATZA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD: MAYORES DE 25
AÑOS

MAYO 2024

**ECONOMÍA DE LA
EMPRESA**

AZALPENAK

Probaren iraupena: ordubete

Hona hemen azterketaren atalak eta atal bakoitzaren balioa:

2 GALDERA TEORIKO, guztira 3 puntu balio dutenak. Galdera bakoitzak gehienez 1,5 puntu balio du.

2 PROBLEMA, guztira 4 puntu balio dutenak. Atal honetan, ikasleak hirutik bi problema egin behar ditu. Problema bakoitzak gehienez 2 puntu balio du.

TEST MODUKO 10 GALDERA: lau erantzun dituzte aukeran, baina bakarra da zuzena. Guztira 3 puntu balio dute. Erantzun zuzen bakoitzak 0,3 puntu balio du; okerreko erantzun bakoitzagatik 0,1 puntu galduko da, eta ez erantzuteak ez du punturik emango, ez kenduko ere. Atal honetako erantzunen batura ez da inoiz negatiboa izango.

Galdera teorikoetan eta problemetan, atal bakoitzari dagokion balioa eta zuzentzeko irizpideak letra etzanez ageri dira letra-tamaina txikiagoan.

GALDERA TEORIKOAK

- 1) Azaldu itzazu merkatu-ekonomiaren eta plangintza zentraleko ekonomiaren arteko desberdintasun nagusiak. *(1,5 puntu)*
- 2) Adieraz itzazu enpresaren kanpo-hazkunderako bost estrategia. *(0,3 bakoitzak; gehienez, 1,5 puntu)*

PROBLEMAK

- 1) Gooik S.A. enpresak alkandorak egin eta saltzen ditu, eta bere puntu hila edo errentagarritasun-atalasea ezagutu nahi du. Horretarako, datu hauek ematen dizkigu: kostu finkoak (soldatak, makinak, etab.) 120.000 € dira. Kostu aldakorak, unitateko, 2,50 € dira; hor sartzen dira erabilitako oihala, haria, botoiak eta abar. Alkandora bakoitzaren salmenta-prezioa 7 euro dela jakinik:
 - a) Zenbat alkandora saldu behar ditu puntu hilera iristeko? *(0,5 puntu)*
 - b) Egin irudikapen grafikoa. *(0,5 puntu)*
 - c) Zenbat alkandora egin eta saldu behar lituzke 18.000 euroko mozkin lortzeko? *(0,5 puntu)*



d) Eragiketarik egin gabe, adierazi ea 26.800 alkandora salduz gero galeren ala irabazien eremuan egongo litzatekeen. (arrazoitu erantzuna) (0,5 puntu)

2) Taulako inbertsio-proiektuetatik abiatuta (kutzako fluxu garbitan adierazita daude):

- a) Kalkulatu A eta B proiektuen berreskuratze-epea edo payback-a. Arrazoitu zein den proiekturik onuragarriena irizpide horren arabera. (1 puntu)
- b) Kalkula ezazu balio eguneratu garbia edo BEGa, eskatutako errentagarritasuna edo deskontu mota % 8 dela joz gero. Arrazoitu zein den egokiena irizpide horren arabera. (1 puntu)

Proiektua	Kutzako fluxu garbiak (€)				
	Hasierako gastua	1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea
A	100.000	10.000	20.000	70.000	90.000
B	200.000	50.000	50.000	50.000	50.000

3) A2 enpresak, 2023ko abenduaren 31n, ondare-elementu hauek aurkeztu ditu kontabilitatean, eurotan baloratuak:

- Eskudirua: 900
- Eraikinak: 90.000
- Programa informatikoak: 980
- Legezko erreserbak: 7.000
- Dirua kontu korranteetan: 8.000
- Salgaiak: 2.100
- Zenbait hornitzailei ordaindu gabeko fakturak: 14.200
- Enpresaren altzariak: 5.000
- Banku batek bost urtean itzultzeko emandako mailegua: 70.000
- Enpresa kudeatzeko erabiltzen diren ordenagailuak: 1.700
- Garraiorako furgoneta: 18.000
- Bezero batzuen kobratzeko fakturak: 9.500

Ibilgetu materialaren amortizazio metatua: 8.900

- Ibilgetu ez-materialaren amortizazio metatua: 100
- Ekitaldiko emaitza (mozkinak): 7.200
- Sozietatearen kapitala: zehazteko.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK: 25 URTETIK GORAKOAK

2024ko MAIATZA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD: MAYORES DE 25
AÑOS

MAYO 2024

**ECONOMÍA DE LA
EMPRESA**

Hau eskatzen da:

- a) Kapital soziala kalkulatzea. (0,5 puntu)
- b) Egin ezazu egoera-balantzea. (0,5 puntu)
- c) Kalkulatu eta azaldu maniobra-funtsa, eta interpreta ezazu grafiko baten laguntzaz. (Kalkulua: 0,5 puntu; azalpena: 0,5 puntu)

TEST MODUKO GALDERAK

1. Zerga hauetako zein ez da zuzeneko zerga bat?

- a) Ekonomia-jardueren gaineko zerga (EJZ).
- b) Sozietateen gaineko zerga (SZ)
- c) Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ)

2. Tasa hauetatik, zeinek konparatzen du biztanleria aktiboa lan egiteko adina duen populazio osoarekiko?:

- a) Jarduera-tasa.
- b) Okupazio-tasa.
- c) Langabezia-tasa.

3. Sozietate kapitalistak honelakoak izan daitezke:

- a) Mugatuak eta anonimoak.
- b) Kolektiboak eta komanditarioak.
- c) Lan-sozietate anonimoak eta kooperatiboak.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK: 25 URTETIK GORAKOAK

2024ko MAIATZA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD: MAYORES DE 25
AÑOS

MAYO 2024

**ECONOMÍA DE LA
EMPRESA**

4. **Nola deritze sozietate anonimo baten kapitala banatuta dagoen zati alikuotei?:**

- a) Partizipazioak
- b) Akzioak
- c) Obligazioak

5. **Produktibitatea bi hauen arteko erlazioa da:**

- a) Lortutako ekoizpena eta erabilitako faktore kopurua.
- b) Mozkina eta kapitala.
- c) Lortutako ekoizpena eta finkatutako helburuak.

6. **Marketinean, honi deritzo produktua:**

- a) Ekoitz daitekeen edozein gauza.
- b) Sal daitekeen edozein gauza, ukigarria zein ukiezina.
- c) Sal daitekeen edozein gauza, betiere ukigarria bada.

7. **Herrialde oso baten urte bateko produkzio osoaren eta zerbitzuen amaierako balio osoa, zerbitzuok nonahi daudela ere, neurtzen dituen adierazle bat aipatzen dugunean, zer adierazle da?**

- a) BPGa.
- b) NPGa.
- c) NPGb-a.
- d) Aurrekoetako bat ere ez.

8. **Ekoizpen-prozesu batean, mozkina zero denean, zer ekoizpen-mailatan gaude?**

- a) Gehieneko salmenta-bolumenean.
- b) Gehieneko produkzio-bolumenean.
- c) Oreka-puntuan.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK: 25 URTETIK GORAKOAK

2024ko MAIATZA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD: MAYORES DE 25
AÑOS

MAYO 2024

**ECONOMÍA DE LA
EMPRESA**

9. Kostu finkoak hauek dira:

- a) Ekoizpenaren epe jakin bateko aldaketarekiko independenteak direnak.
- b) Ekoiztako kantitatearekiko proportzionalak diren kostuak.
- c) Puntu hilean edo errentagarritasun-atalasean kostu aldakorrak berdintzen dituztenak.

10. Banku batek enpresa bati emandako mailegua honen parte da:

- a) Ondare garbiarena.
- b) Enpresaren pasiboarena.
- c) Enpresaren aktibo zirkulatzailarena.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2024ko MAIATZA

EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2024

ECONOMÍA

EBAZPENA: ENPRESAREN EKONOMIA

(Maiatza)

GALDERA TEORIKOAK

1) 1,5 puntu gehienez. Hartu kontuan letra lodiz idatzitako puntuak.

a) Merkatu-ekonomia:

- Ekoizpen-bitartekoen jabetza **pribatua** da, hau da, pertsoneri edo enpresei dagokie, ez Estatuari.
- Estatuak existitzen da, **baina ekonomian ez du esku hartzen ia batere**. Funtzio publikoa oinarritzko kontuetara mugatzen da, hala nola esparru juridikoa ezartzera, hau da, oinarritzko lege eta araudiak ezartzera familiek eta enpresek beren jarduerak inori kalterik egin gabe egin ahal izan ditzaten. *Adibidez: gutxieneko soldata, lanaldi mugatua, ingurumenaren babesa, etab.* Estatuak oinarritzko ondasun eta zerbitzu publikoak emateaz ere arduratzen da. *Adibidez, errepideak, justizia, defentsa edo segurtasun-indarrak.*
- **Erosleen eta saltzaileen arteko komunikazioa ez da zuzena; prezioen (eskaintza eta eskaria) bidez gertatzen da.**
- **Ekoizpena:** merkatuko eragile ekonomikoek erabakitzen dute zer, nola eta norentzat produzitu.
- **Badira pizgarriak:** Pertsona edo enpresa batek gogorrago lan egin nahi badu diru gehiago irabazteko eta bere bizi-itzaropenak edo helburuak betetzeko, sistema honek horretarako aukera ematen du. Enpresek, lehia handiaren aurrean, beren produktuak hobetu nahiko dituzte, eta kostuak murrizten saiatuko dira etekinak lortzeko. Langileak gehiago eta hobeto ekoizten saiatuko dira, errenta handiagoak jaso eta ondasun gehiago erosi ahal izateko. Hau da, badira sariak gauzak hobeto egiteagatik. **Irabazi-asmoa.**

b) Plangintza zentraleko ekonomia edo ekonomia planifikatua:

- Ekoizpen-faktoreen jabetza **publikoa** da. Estatuak ditu ekoizpen-faktore guztiak. Beraz, langile guztiak funtzionario dira, eta etxebizitzak, baliabide naturalak, fabrikak eta enpresak Estatuarenak dira.
- **Estatuak erabakitzen ditu prezioak.** Prezioak finkatzen dituen merkaturik ez dagoenez, Estatuak finkatzen ditu prezioak, kontuan harturik, horretarako, zer ondasun saldu nahi duen. Ondasun jakin bat erosi izatea nahi duenean, haren prezioa jaitsiko du. Ondasun baten kontsumoa geldiarazi nahi badu, igo egingo du.
- **Ekoizpen planifikatua.** 4-5 urteko iraupena izan ohi duten planen bidez zehazten ditu Estatuak ekoizpena eta neurriak.
- **Helburua: Errentaren banaketa berdinzalea.** Estatuak gizarte-ongizatea bermatu nahi du, eta gizarte osoarentzat beharrezkoak diren zerbitzu eta ondasunak eman. Horretarako, bermatzen du aberastasuna herritar guztien artean modu bidezkoan banatuko dela.
- **Eraginkortasunik eza.** Horrelako sistemek produktibitate-tasa txikiak izan ohi dituzte, planifikatzeko arazoak, gehiegizko burokrasia edo langileak motibatzen dituzten pizgarriak eza direla eta.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2024ko MAIATZA

EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2024

ECONOMÍA

2) Enpresaren kanpo-hazkundera: (0,3 puntu bakoitzeko (gehienez, 5 estrategia), 1,5 puntu)

- **Zenbait sozietate integratzea, bat-egitea.** Zenbait sozietatek bat egiten dute beren ondareak elkartuz. Adibidez, bankuen arteko fusioak, BSCH, BBVA.
- **Xurgapena:** Zenbait sozietate nagusi batean sartzean datza; nagusi horrek irauten du, eta lidergoa hartzen du.
- **Holding-a:** Enpresa batek (enpresa nagusiak) beste enpresa batzuen (filialen) partizipazioak hartzea, akzioak erosiz, haien kontrola hartzeko.
- **Trust edo kontzentrazio bertikala:** Enpresa-elkarte bat da, ekoizpen-prozesuaren fase batzuetako enpresez osatua, elkarte horren bidez kostuak murrizteko eta nagusitasuna lortzeko eratzten dena. Adibidez, papera, tintak, liburuak eta abar ekoizten dituen enpresa-talde bat.
- **Kartela edo kontzentrazio horizontala:** Ekoizpen-prozesu baten fase bereko enpresen elkarte, ekoizpen-sektore horretan monopolio moduan jokatzeko helburuz eratua. Adibidez, olio-ekoizleen elkarte bat, produktuaren prezioak finkatzen dituen (CEPSA, REPSOL, BP... erregaiekin).
- **Lankidetzeta.** Enpresa independenteen artean harreman bereziak ezartzea, baliabideak eta ezagutzak partekatzeko, arriskuak saihesteko, kostuak murrizteko edo merkatu berrietara sartzeko, betiere helburu komun bat lortzearren.

PROBLEMAK

1) Errentagarritasun-atalasea

a. 0,5 puntu

$$KF = 120.000 \text{ €}$$

$$KA = 2,50 \text{ €}$$

$$N = \frac{KF}{SP_u - KA_u} = \frac{120.000}{7 - 2,50} = \frac{120.000}{4,50} = 26.666,67 \text{ alkandora}$$


26.667 alkandora egin eta salduz gero, ez da irabazirik lortuko, baina ez da galerarik izango. Gastuak eta diru-sarrerak berdin-berdinak dira.

$$SP \cdot N = KF + KA \cdot N$$

$$7 \cdot 26.666,67 = 120.000 + 2,50 \cdot 26.666,67$$

$$186.666,67 = 186.666,67 \text{ (irabaziak eta galerak berdintzen dira).}$$

b. 0,5 puntu



c. 0,5 puntu

18.000 euroko irabazia lortzeko saldu beharko duten alkandora kopurua.

$$SP \cdot N = KF + KA \cdot N + 150.000$$

$$7 \cdot N = 120.000 + 2,50 \cdot N + 18.000$$

$$7N - 2,50N = 120.000 + 18.000$$

$$4,50N = 138.000$$

$$N = \frac{138.000}{4,50} = 30.666,67: 18.000 \text{ € irabazteko ekoitzi beharreko kantitatea}$$

$$SP \cdot N = KF + KA \cdot N + 18.000$$

$$7 \cdot 30.666,67 = 120.000 + (2,50 \cdot 30.666,67) + 18.000$$

$$214.666,67 = 214.666,67$$

d) Errentagarritasun-atalasea 26.667 alkandora denez, enpresak irabaziak izango lituzke.

2) Inbertsioak hautatzeko.

a) (0,5 puntu ebazpenagatik eta 0,5 puntu behar bezala arrazoitzeagatik).

$$A = -100.000 + 10.000 + 20.000 + 70.000 + 90.000 =$$

A inbertsioa 3 urtean berreskuratuko litzateke.

$$B = -200.000 + 50.000 + 50.000 + 50.000 + 50.000$$

B inbertsioa 4 urtean berreskuratuko litzateke.

Payback-a edo berreskuratze-epea inbertsioak ebaluatzeko irizpide bat da, honela definitzen dena: inbertsio baten hasierako kapitala berreskuratze behar den denbora. Inbertsioak ebaluatzeko metodo estatiko bat da.

Payback-ak adierazten digu zenbat denbora (normalean, zenbat urte) behar ditugun inbertsioaren hasieran ordaindutako dirua berreskuratzeke.

Beraz, A aukera hautatuko genuke kasu honetan, azkarrenik berreskuratuko dugun inbertsioa delako.

b) (0,5 puntu ebazpenagatik eta 0,5 puntu behar bezala arrazoitzeagatik)



$$\text{BEGa (A)} = -100.000 + 10.000 + 20.000 + 70.000 + 90.000$$

$$\frac{\quad}{(1+0,08)} \frac{\quad}{(1+0,08)^2} \frac{\quad}{(1+0,08)^3} \frac{\quad}{(1+0,08)^4} =$$

$$\text{BEGa (A)} = -100.000 + 9.259,26 + 17.146,78 + 55.568,26 + 66.152,69 =$$

$$\text{BEGa (A)} = \mathbf{48.126,98}$$

$$\text{BEGa (B)} = -200.000 + \frac{50.000}{(1+0,08)} + \frac{50.000}{(1+0,08)^2} + \frac{50.000}{(1+0,08)^3} + \frac{50.000}{(1+0,08)^4}$$

$$\text{BEGa (B)} = -200.000 + 46.296,30 + 42.866,94 + 39.691,61 + 36.751,49$$

$$\text{BEGa (B)} = \mathbf{-34.393,66}$$

Balio eguneratu garbia (BEG) inbertsio-irizpide bat da: proiektu edo inbertsio baten kobrantzak eta ordainketak eguneratzean datza, inbertsio horrekin zenbat irabazi edo galduko den jakiteko.

Horretarako, kutxako fluxu guztiak oraingo unera ekartzen dira, interes-tasa jakin batera deskontatuta. BEGak proiektuaren errentagarritasun-neurria termino absolutu garbitan adieraziko du, hau da, diru-unitatetan.

Beraz, A aukerak ematen digu, kasu honetan, errentagarritasunik handiena.

3)

a) Kapital soziala: 28.780 €.

b) Egoera-balantzea:

ACTIVO		PASIVO + NETO	
ACTIVO NO CORRIENTE	106.680	NETO	42.980
Mobiliario	5.000	Reservas (reservas legales)	7.000
Construcciones (edificios)	90.000	Capital social	28.780
Aplicaciones informáticas (Programas informáticos)	980	Resultado del ejercicio (Beneficios)	7.200
Equipos para proc. Información. (Ordenadores para la gestión)	1.700		
Elementos de transporte (Furgoneta de transporte)	18.000		
Amortización acumulada Inmovilizado Material	-8.900		
Amortización acumulada Inmovilizado Inmaterial	-100		
		PASIVO NO CORRIENTE	70.000
		Deudas a largo plazo (Préstamo concedido por un banco)	70.000
ACTIVO CORRIENTE	20.500	PASIVO CORRIENTE	14.200
Existencias (Mercaderías)	2.100	Proveedores (Facturas pendientes de pagar)	14.200
Cientes (Facturas pendientes de cobro)	9.500		
Caja (dinero en efectivo)	900		
Bancos c/c (Dinero en cuentas corrientes)	8.000		
TOTAL ACTIVO	127.180	TOTAL PASIVO + NETO	127.180

Maniobra-funtsak enpresaren epe laburreko finantza-oreka zehazten du. Era berean, enpresaren epe luzeko finantzaketaren berri ematen digu; ondare garbia gehi pasibo ez-korrontea ken aktibo



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2024ko MAIATZA

EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2024

ECONOMÍA

ez-korrontea (epe luzera finantzatutako epe laburreko parte).

Maniobra-funtsa = aktibo korrontea - pasibo korrontea = (ondare garbia + pasibo ez-korrontea) - aktibo ez-korrontea.

Gure kasuan: Maniobra-funtsa: $20.500 - 14.200 = 6.300$

Enpresa finantza-orekan dago; epe laburreko ondasunek eta eskubideek aurre egin diezaiekete epe laburreko betebeharre; epe luzekoak finantzatzen ditu izakinak eta bezero-kontuaren zati handi bat.

c) Irudikapen grafikoa:

AEK % 83,88 106.680		PG % 33,79 42.980
		PEK % 55,04 70.000
AK % 16,12 20.500	MF: 6.300	PK % 11,17 14.200
127.180		127.180



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2024ko MAIATZA

EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2024

ECONOMÍA

TEST MODUKO GALDERAK

1. c / 2. a / 3.a / 4. b / 5.a / 6. b / 7.b / 8.c / 9.a / 10. b

GALDERAK	EZAGUTZA-ADIERAZLEAK
Teorikoak	
1	1,3
2	2,2
Problemak	
1	2.15, 2.16, 2.17
2	2,24
3	3.1, 3.7
TEST MODUKO GALDERAK	
1	1,6
2	1,8
3	2,6
4	2,7
5	2,13
6	2,21
7	1,7
8	2,17
9	2,15
10	3,1